Jardueren memoria 2017

UNIBASQ

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA

AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

UNIBASQ

Jardueren memoria 2017

04



01. Sarrera 06. pag

02. UNIBASQek Egindako Eba-luazio Jarduera 08. pag

- 02.I. Irakasleak 08. pag
- 02.II. Tituloak 12. pag
- 02.III. Instituzionala 15. pag

03. Nazioartekotzea 16. pag

04. Beste jarduerak 18. pag

05. Aurrekontua gauzatzea 22. pag

01. Sarrera

2017. urtea jarduera handiko urtea izan da Unibasqen.

2017. urtea jarduera handiko urtea izan da Unibasqen. Alde batetik, Gobernu Kontseiluak onartutako antolamendu-egitura berriak azken urte hauetan garatzen ari den jarduerarekin bat datorren irudi egokiagoa erakutsi du. Ildo horretan, postu espezifiko bat zehaztu da nazioarteko jarduerarako, gainera, nazioartekotzea Unibasqen plan estrategikoaren ardatzetako bat da.

Horrez gain, Euskal Unibertsitate-Sistemaren jardueraren Behatokia aurkeztu zaio gizarteari. Behatoki horretan hiru euskal unibertsitateei eta haien titulazioei buruzko informazio garrantzitsua biltzen da.

Eusko Jaurlaritzaren unibertsitate/enpresa estrategia berriaren ildotik, Unibasqen Gobernu Kontseiluak deialdi bat onartu zuen. Deialdi horren helburua Euskal Unibertsitate Sistemako Graduko eta Masterreko titulazioetarako "prestakuntza dualaren edo Unibertsitatea/Erakundea alternantziaren" aitorpena lortzea da.

KUDEAKETA OROKORRA: ZUZENDARITZA-ORGANOAK

Unibasqen zuzendaritza

Unibasqen zuzendaria, Eva Ferreira, 2016ko urritik ENQA Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitatea Segurtatzeko Europako Elkarteko Zuzendaritza Kontseiluko kidea da.

Gobernu Kontseilua

2017an, Gobernu Kontseilua 4 aldiz bildu da ohiko moduan (martxoaren 16an, maiatzaren 15ean, uztailaren 21n eta urriaren 16an). Unibasqen webgunean eskura daude bilera horietan hartutako erabakiak laburbiltzen dituzten aktak.

2017. urtean Gobernu Kontseiluan kide berri hau sartu da: EHUko errektore berria, Nekane Balluerka, Iñaki Goirizelaia aurreko errektorea ordezkatuz.

Aholku Batzordea

Aholku Batzordeak 3 bilera egin ditu 2017an (otsailaren 21ean, uztailaren 17an eta irailaren 29an). Unibasqen webgunean eskura daude bilera horietan zer gai landu ziren eta zer erabaki hartu ziren egiaztatzeko akten laburpenak, betiere organismo honi dagozkion eginkizunen arabera.



02 UNIBASQek Egindako Ebaluazio Jarduera

Agentziak 2017an egindako lanari dagokionez, honako hauek izan dira jardun nagusiak:

I. IRAKASLEAK

a) Irakasle eta Ikertzaileen Egiaztapena

2016ko azaroaren 14ko bilkuran, Unibasqen Gobernu Kontseiluak irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko 2017rako Deialdi Orokorra onartu zuen. EHAn argitaratu zen 2016/12/23an, eta deialdiaren helburua doktore ikertzaileak, irakasle atxikiak, irakasle agregatuak, irakasle osoak eta unibertsitate pribatuetako irakasle doktoreak ebaluatu eta egiaztatzea zen.

Ebaluazio oso-osoa ekitaldiaren barruan egin da: 694 eskaera izan ziren eta (2016an 698), azkenean, 649 onartu genituen ebaluatzeko (2016an 644); hurrengo taulan jakintza-arloaren arabera banatuta ikus ditzakegu:

	2017	2016
Zientzia Esperimentalak (ZE)	118	125
Medikuntza eta Osasun Zientziak (MZ)	86	115
Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak (GLEZ)	202	175
Irakaskuntza Teknikoak (IT)	152	141
Giza Zientziak (GZ)	91	88
GUZTIRA	**649**	**644**

Deialdi honetan, guztira 431 eskatzaile egiaztatu dira (265 2016an); irakasle motaren eta jakintza-arloaren arabera banatuta ikus ditzakegu hurrengo emaitza-taulan:

Irakasle mota	ZE		ZM		GLEZ		IT		GZ		Guztira	
Atxikia	15	27	6	15	28	42	26	21	17	14	92	119
Agregatua	3	11	11	13	21	37	5	12	5	5	45	78
Osoa	1	0	1	3	3	1	5	1	1	2	11	7
Doktore ikertzaileak	7	4	1	0	1	2	0	0	2	0	11	6
Unibertsitate pribatuko doktorea	0	2	5	2	12	14	13	6	1	7	31	31
GUZTIRA	26	44	24	33	65	96	49	40	26	28	190	241

Deialdi honetan, guztira 431 eskatzaile egiaztatu dira

2017ko urriaren 9an, Aholku Batzordeak ebaluazio-protokolo berria onartu zuen, eta ondoren, urriaren 16an, Unibasqen Gobernu Kontseiluak, doktore-tituludun ikertzaile, irakasle oso, ikerketa irakasle, irakasle agregatu, irakasle atxiki eta unibertsitate pribatuko irakasle doktoreen ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko 2018ko ohiko deialdia onartu zuen.

b) Ikerkuntza

Seiurtekoak

2017an 2016ko ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdiaren ebaluazioa egin da. 100 eskatzailek aurkeztu zituzten eskaerak, 107 tarte ebaluatzeko eskatuz. Ebaluazio horren emaitzetan, 98 seiurtekoren aldeko ebaluazioa egin zen.

Ebaluazioa ANECAk egiten du, erakunde autonomo horrek eta Unibasqek sinatutako lankidetza-hitzarmenari jarraikiz.

2017ko abenduan ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdi berri bat argitaratu da eta ebaluazio hori 2018. urtean egingo da.

Ikertramoak

Ikertramoak ikerketa-jarduera ebaluatzeko programa da eta lan-kontratu iraunkorrik ez duten irakasleak edo ikertzaileak ditu jomugan. Ebaluazioa egiteko aukera izateko aldez aurreko akordio, hitzarmen edo kudeaketa-mandatu bat beharko da Unibasqen eta unibertsitatearen edo ikerketa-erakundearen artean, azken hori izango delarik deialdiak egingo dituena.

2017an UPV/EHUk eskatuta, 10 eskaera ebaluatu dira.

Iker22

Prozedura horren helburua da unibertsitate publiko batek edo Estatuaren Administrazio Orokorraz bestelako administrazio publiko bateko ikerketa-erakunde batek kontratatutako langileek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikuluak aipatzen duen ebaluazioa egin ahal izatea. Horregatik aldez aurreko akordio, hitzarmen edo kudeaketa-mandatu bat beharko da Unibasqen eta unibertsitatearen edo ikerketa-erakundearen artean, azken hori izango delarik deialdiak egingo dituena.

2017an 98 ikerketa-tarte ebaluazio positiboa jaso zituzten.

2017an UPV/EHUk eskatuta, 11 eskaera jaso dira eta ebaluazio hori 2018. urtean egingo da.

c) Ordainsari Osagarrien Ebaluazioa

Unibasqi zenbait eginkizun agindu dizkiote, besteak beste irakaskuntza-, ikerkuntza- eta kudeaketa-arloko merezimenduak ebaluatzea, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 34. artikuluan Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle eta ikertzaileentzat aurreikusitako gehigarrizko osagarriak esleitzeko.

2017an, Agentziak 2016ko deialdian aipatutako eskaeren ebaluazioa burutu du. Guztira 1.299 eskaera ebaluatu dira (335 C eta 964 A/B tarteak).

II. TITULOAK

Egiaztatzea / Baimentzea

Programa honen helburua Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitateek egiten dituzten gradu, master eta doktoregoko tituluen proposamenen ebaluazioa da, egiaztapena eta baimena lortzeko aurretiko txostena igortzeko, tituluak ezarri aurretik. Ebaluazioa hurrengo arauei jarraiki egiten da, 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen ordenamendua ezartzen duenaren eta bere ondorengo aldaketak, 99/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, doktorego irakaskuntza ofizialak arautzen dituena eta 11/2009 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.

Agentziak 2017an masterreko 4 (2 Deustuko Unibertsitatekoak (UD) eta 2 Mondragon Unibertsitatekoak (MU)) eta graduko 2 (1 Euskal Herriko Unibertsitatekoa (UPV/EHU) eta 1 MU) proposamen ebaluazioa burutu du.

Aldakuntza

Programa honen helburua Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitateen gradu, master eta doktorego tituluen aldaketa proposamenen ebaluazioa burutzea da.

2017an MUko 8 gradu eta beste 9 master (4 UPV/EHU, 4 UD eta 1 MU) tituluen ebaluazioa burutu du eta, eta dagozkien aldaketa-txostenak egin dira.

Jarraipena

Uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aldatutako urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 27. artikuluak honako hau ezartzen du: “Unibertsitate, ikastegi eta tituluen erregistroan (RUCT) inskribatutako titulu ofizialei dagozkien irakaskuntzak ezartzen hasi ondoren, Unibertsitate Kontseiluak egiaztatutako ikasketa-planean

bildutako proiektuaren betetzearen jarraipena egingo dute ANECA erakundeak edo autonomia-erkidegoetako Legeak finkatzen dituen ebaluazio-organoek.”

2017. urtean Unibasqek jarraipena egiteko 76 txosten egin ditu (56 UPV/EHU, 13 UD eta 7 MU).

Egiaztapena Berritzea

1393/2007 Errege Dekretuaren, urriaren 29koa, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen ordenamendua ezartzen duenaren eta bere ondorengo aldaketen, 24. artikuluak unibertsitate titulu ofizialek bere egiaztapena aldizka berritu behar dutela ezartzen du, betiere "Erkidego bakoitzak, bere eskumen esparruko Unibertsitateei dagokionez, ezarritako prozeduraren arabera berrituko dute egiaztapena, 27 bis artikuluan ezarritakoari jarraiki".

2017ko ebaluazioa honako deialdi hauen bitartez gauzatu da:

IV. deialdia:
Egiteke zeuden panelen bisitak eta Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeen txostenak egiten bukatu dugu; horren ondorioz, 44 titulu egiaztatu dira: UD 20 (13 gradu eta 7 master), UPV/EHU 17 (4 gradu eta 13 master) eta MU 7 (5 gradu eta 2 master).

V. deialdia:
2017ko urrian hasi da eta 15 titulu aurkeztu dira ebaluatzeko: UPV/EHU 13 (2 gradu eta 11 master) eta UD 2 master.

Deialdi horren ebaluazioa egiteko, Unibasqek 6 bisita-panel eratu ditu, lana 2017an burutu dutenak, eta titulazioak berritzeari buruzko txostenak hurrengo ekitaldian egingo dira.

Bi deialdi horietan, AUDIT batzordeak ere parte hartu du ebaluazioan, eta Kalitatea Bermatzeko Sistemari (KBS) buruzko 3. irizpidea berraztertu du.

Duala

Pasa den 2017ko urriaren 16an, Gobernu Kontseiluak, Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitorpena lortzeko deialdia onartu zuen. Guztira 27 eskaera jaso dira eta ebaluazioa 2018. urtean egingo da.

2017. urte bukaeran programari buruzko prestakuntza eman zitzaien ebaluatzaile eta aholkulari profesionalei.

2017an 8 gradu eta beste 9 master tituluen ebaluazioa burutu du.

Berezko Tituluak

Euskal Herriko Unibertsitateak, aldez aurretik aipatutako irakaskuntza ofizialak aurkeztu zituen, ebaluatzeko, eta, horiek ez ezik, bere irakaskuntza-eskaintzaren berezko titulu-proposamenak ere aurkeztu zituen.

2017an, UPV/EHUk bidalitako 11 proposamenak ebaluatu dira.

basque culinary center

AUDIT programaren barruan diseinu berriei dagozkien 3 eskaera ebaluatu dira.

III. INSTITUZIONALA

Audit

AUDIT programaren barruan diseinu berriei dagozkien 3 eskaera ebaluatu dira (2 UPV/EHU eta UD 1).

UPV/EHUko zentro baten KBSa ziurtatzeko txostena igorri da eta beste 5en KBSren ezarpena ziurtatzeko panelen bisitak egin dira. Horietako bat Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren ereduarekin lotutako bisita elkartua izan da. UPV/EHUko Gasteizko Ingenieritza Eskolak zilarrezko A lortu du.

Docentia

2017an, agentziaren DOCENTIA batzordea sortu eta izendatu da. Batzorde horrek UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko eredua ezartzeko ebaluazioaren behin-behineko txostena egin du (jarraipena egin zaion 6. urtea).

Programa-Kontratuak

Eusko Jaurlaritzak eskatuta, EAEko hiru unibertsitateek aurkeztutako txostenak ebaluatu ditugu; txosten horiek Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateek 2015-2018 aldirako sinatutako programa-kontratuen betetze-mailari buruzkoak ziren.

Unibertsitate Onespena

Unibertsitate berri bat sortzeko eskaera jaso da eta honen ebaluazioa 2018an burutuko da.

03. Nazioartekotzea

Agentziaren nazioarteko jarduera areagotu da 2017. urtean. Jarduera horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

Ekitaldietan parte hartzea:

- ECAko erakundeen egiaztapenari buruzko eskualdeko mintegia (Lisboa, 2017ko urtarrila).
- INQAAHE elkarteak 2017an antolatutako "Between collaboration and competition: The promises and challenges for Quality Assurance in Higher Education" kongresua; AQAS agentziarekin batera emandako hitzaldiarekin hartu zen parte (Bahrain, 2017ko otsaila).
- University-Business Forum (Brusela, 2017ko apirila).
- Focus group EQUIP proiektua (Oslo, 2017ko maiatza).
- ENQAko kideen foroa (Oslo, 2017ko maiatza).
- LIREQA "Exploring Synergies Between Quality Assurance and Qualifications Recognition" proiektuaren tailerra (Dublin, 2017ko ekaina).
- ECAren udako mintegia (Paris, 2017ko ekaina).
- ECAren nazioartekotzearen kalitate-ziurtagiriari buruzko prestakuntza (CeQuint) (Haga, 2017ko iraila).
- ENQAren 2017ko batzar orokorra (Sèvres, 2017ko urria).
- 12th European Quality Assurance Forum (Riga, 2017ko azaroa).

Lantaldeetan parte hartzea:

- "Kalitatea aintzatesteari eta bermatzeari" buruzko lantaldea (ENQA).
- Elkar aintzatesteari eta baterako tituluei buruzko I. lantaldea (Unibasqek koordinatzen du talde hori 2017ko ekainaz geroztik) (ECA).
- Kalitate-bermearen eta egiaztapenaren inguruko berrikuntzari buruzko II. lantaldea (ECA).

Agentziaren nazioarteko jarduera areagotu da 2017

Europako proiektuetan parte hartzea:

- EQAR (Goi-mailako Hezkuntzan Kalitatea Bermatzeko Europako Erregistroa) buru den Database of External Quality Assurance Results (DEQAR).

- Facilitating implementation of the European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes (ImpEA).

Gainera, "Linking Academic Recognition and Quality Assurance (LIREQA)" proiektuan laguntzen du. Proiektu horrek ENQAk "Kalitatea aintzatesteari eta bermatzeari" buruz egindako lanari jarraipena eman dio.

Beste batzuk:

AQAS agentzia alemaniarrarekin batera Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) edo Espainiako Unibertsitate Sistemako ebaluatzaileak prestatzea titulazioak ebaluatzeko Alemanian (Bilbo, 2017ko martxoa) eta Alemaniako ebaluatzaileak prestatzea Euskal Unibertsitate Sisteman titulazioak eta Kalitatea Bermatzeko Sistemak ebaluatzeko (Kolonia, 2017ko urria).

04. Beste jarduerak

2017. urtean, Espainiako unibertsitateen kalitateko agentzien sarean txertatutako ebaluazio-agentzien bi topaketetan parte hartu dugu.



Aholku ematea erakudeei

Aholku ematea Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Funtzio Publikoari Lan-eskaintza Publikoko lanpostu jakin batzuk eskura ditzaketen titulazioei buruz.

Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikorako Txostena egitea antzinako lizentziaturen eta graduko titulazio berrien arteko baliokidetasunei buruz egindako kontsultei dagokienez.

REACU

2017. urtean, Espainiako unibertsitateen kalitateko agentzien sarean txertatutako ebaluazio-agentzien bi topaketetan parte hartu dugu.

Ikasleen Aholku Batzordea

Batzordeak 3 aldiz bildu da eta onartutako Prestakuntza Planaren barruan, aurreikusita zeuden ikasleentzako bi prestakuntza-tailerrak burutu dira.

ICU txostena

Espainiako gainerako agentziekin ere jardun dugu Espainiako Unibertsitateetako Kalitateari buruzko 2016ko txostena idazten.

Quality Innovation Award 2017

Unibasq EUSKALITekin batera aritzen da tokiko fasean hautagaiak ebaluatzeko adituen hautaketa eta unibertsitate artean hedapena egiten. 2017an 11 ebaluazio egin ditugu.

Sinatutako hitzarmenak:

-Lankidetzako hitzarmen-esparrua Unibasqen eta Ikerbasqueren artean.

-ANECAren eta Unibasqen arteko lankidetza-hitzarmena Euskal Herriko Unibertsitate publikoetako irakasle kontratatu iraunkorren ikerkuntza ebaluatzeko.

-Lankidetzako hitzarmen-esparrua Aconcaguako Unibertsitatearen (Txile) eta Unibasqen artean.

-Deustuko Unibertsitatearen eta Unibasqen arteko lankidetza-hitzarmena Deustuko Unibertsitateko irakasle kontratatu ez-iraunkorren ikerketa-tarteak ebaluatzeko.

-Deustu Fundazioaren eta Unibasqen arteko lankidetza-hitzarmena Deustu Fundazioak kontratatutako ikertzaileen ikerketa-tarteak ebaluatzeko.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzari edo Unibasqi atxikitako organoetan ikasleen ordezkariak izendatzeari buruzko Protokolo bat sinatu da. Protokolo hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Unibasqen eta Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordearen artean adostu da.

Unibasqek antolatutako ekitaldiak:

•AUDIT jardunaldia Kalitatea bermatzeko Sistemen (KBS) ziurtapenari buruz (Bilbo, 2017ko martxoa).

•Gizarte-transferentziari eta -eraginari buruzko jardunaldia "Ikerkuntzaren inpaktu soziala" (Bilbo, 2017ko maiatza).

•Enplegagarritasunari buruzko "¿Qué hace una universitaria como tú en un trabajo como este?" ikastaroa (UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa) (Donostia, 2017ko uztaila).

•Unibertsitateei aldizkako bisitak eta euren jaurdunaldi informatiboetan parte hartzea.

Berdintasun Batzordea sortu da Unibasqen



Kudeaketa hobetzea:

a. Agentziako langileak:
Unibasqeko erreferentziazko plantilla eta lanpostuei buruzko balioespena egin dira; horren ondorioz, agentziaren antolamendu-egitura berria onartu da. Horri esker, eginkizunen berresleipena egin da, eta horrek ahalbidetu du agentziaren funtzionamendu efizienteagoa izatea.

b. Kalitatea eta barne-kudeaketa:
Unibasqek Euskaliten kudeaketa aurreratuko diploma lortu du 2017an.

Unibasqek konpromiso bat hartu du Euskalitekin, etorkizunean Agentziako ebaluatzaileak emateko, eta hartutako konpromiso hori dela medio, agentziako langile batzuek "Kudeaketa aurreratuaren eredua: kasu praktiko baten ebaluazioa" ikastaroa egin dute.

c. Bikain ziurtagiria:
Unibasqek zilarrezko Bikain ziurtagiria lortu du eta euskararen presentzia finkatu du eguneroko erabileran eta kudeaketan.

d. Barne komunikazioa:
Agentziako langileekin koordinatzeko bilerak egiten dira aldizka.

e. Kanpo-komunikazioa:
-Bisitak egin dira unibertsitateetara programetako berrikuntzak azaltzeko.

-Euskal Unibertsitate Sistemaren jarduerari buruzko Behatokia eta webgune berria aurkeztu zaio gizarteari.

-Komunikazio Protokoloa egin da.

f. Prestakuntza:
Gutxienez hiru prestakuntza-jarduera egin dira urtean

g. Berdintasuna:
Berdintasun Batzordea sortu da Unibasqen, eta Batzorde hori berdintasun-plana garatzen ari da.

05. Aurrekontua gauzatzea

Unibasqeko langileek lan egindako orduen banaketa



Arloa	Orduak guztira
Kalitatea eta Barne Kudeaketa	8.535 ordu
Irakasle eta Ikertzaileak	4.422 ordu
Titulazioak	3.542 ordu
Erakundeak	465 ordu
Nazioartekotasuna	459 ordu

Gastu banaketa arloka (eurotan)



Arloa	Kostua €
Kalitatea eta Barne Kudeaketa	498.098
Irakasle eta Ikertzaileak	381.341
Titulazioak	242.453
Erakundeak	43.137
Nazioartekotasuna	100.416
Kanpo Komunikazioa eta Azterketa Tematikoak	38.494

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO
UNIBASQ

San Prudentzio, 8.
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 123 356
info@unibasq.eus
www.unibasq.eus
www.observatorio.unibasq.eus

unibasq Obehatokia
www.observatorio.unibasq.eus

2017 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria